

Euskarazko herri-prentsaren irakurleen profila aztergai

Alazne Aiestaran Yarza
EHUko ikertzailea

Tokian tokiko 5 aldizkariren irakurleen profila eta herritarrek aldizkari inguruan duten iritzia jaso da hurrengo lerroetan. Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzari esker Txorierriko *Aikor!*, Eibarko *...eta kitto!*, Elgoibarko *Barren*, Orio eta Aiako *Karkara* eta Idiazabalgo *Aldaize* aldizkari inguruko datu esanguratsuak jaso ahal izan dira. Besteak beste, azaltzen da publikoaren ezagutza maila zein den aldizkari hedapen-eremuan, euren irakurle kopurua zenbatekoa den, irakurleek aldizkariak irakurtzen ematen duten denbora, aldizkari sarbidea zein den eta irakurleek aldizkariari buruz dituzten iritzia zein diren. Orobat, emaitza horietatik abiatuz, emaitza nagusiak eta etorkizunerako proposamenak bildu dira.

GAKO-HITZAK: Euskarazko herri-prentsa · Irakurleak · Sarbidea · Irakurleen iritzia.

This article analyzes the readers' profile and views about five local magazines written in Basque. Thanks to a grant from the Basque Government, researchers have obtained significant results about the following magazines: *Aikor* based in the Txorierrri region (Bizkaia), *...eta kitto!* based in Eibar (Gipuzkoa), *Barren* based in Elgoibar (Gipuzkoa), *Karkara* based in Orio (Gipuzkoa), and *Aldaize* based in Idiazabal (Gipuzkoa). This article analyzes the readers' knowledge of the magazines distributed within their areas of residence, the time readers spend reading magazines, and the readers' opinions on these Basque language magazines. Additionally, based on these results, this paper includes the main conclusions and proposals for the future.

KEY WORDS: Basque local press · Readers · Readers' views · Readers' access to local press.

Jasotze-data: 2010-06-14. *Onartze-data:* 2010-07-07.

1. Sarrera

Aztiker Ikergunea enpresak 2008 eta 2009 urteetan bost aldizkariren irakurle eta iritzien ikerketaren txostenak oinarri hartuta, tokian tokiko bost aldizkariak euren hedapen-eremuetan duten publikoa zein den eta irakurleek produktuei buruz duten iritzia azaltzea da artikulu honen helburua. Izan ere, orain arte euskarazko herri-prentsa intuizioz aritu izan da bere irakurleen inguruan, frogatu gabeko pertzepzio eta usteei jarraituz.

1988an euskarazko herri-prentsaren aintzindari bilakatuko zen *Arrasate Press* astekariak ikusi zuen lehenengoz argia Arrasaten, baina euskarazko tokian tokiko prentsak 90eko hamarkadan ezagutu zuen benetako garapena eta hazkundera, orduan sortu baitziren euskarazko herri-aldizkari gehienak Hego Euskal Herrian, eta horietako asko eta asko gaur egunera arte heldu dira. 20 urte pasatu dira lehenengo loraldi hura gertatu zenetik, baina bien bitartean komunikazioa eta hedabideak asko aldatu dira eta etengabe aldatzen ari dira teknologia berriei eta digitalizazioari esker. Globalizazioak gero eta indar handiagoa duen gizarte honetan bizirauteko, eta, etorkizuna ganoraz diseinatu ahal izateko, uneoro beharrezkoa da jakitea norberaren tokia zein den, zertan ari den eta zein bide hartu behar duen aurrerantzean. Horretarako produktuak jasotzen dituzten irakurleen profila nolakoa den eta irakurleen iritzia jasotzea ezinbestekoa da. Horixe azpimarratzen du Iban Arantzabalek:

Gure lana ezin da amaitu aldizkaria buzoian utzita edo ordubeteko telebista saio bat emanda. Jakin behar dugu hartzaileak zer pentsatzen duen gutaz, ea zein den hartzailea, nora ari garen heltzen, zein den gure penetrazio-maila gure hartzaile potentzialen artean, ia publizitatean gora egiten dugun edo ez... Gure bezeroak (irakurleak, publizitatea jartzen dutenak...) aintzat hartutako produktuak egiten dihardugun edo ez jakin behar dugu. Kalitateaz mintzo garenean aldagai hauek ezinbestean izan behar ditugu buruan (Arantzabal, 2008: 112).

Zentzu horretan, Aztiker Ikergunea enpresak¹ 2008 eta 2009 urteetan bost aldizkarion irakurle eta iritzien ikerketaren emaitzen txostenak² oinarri hartu dira hurrengo lerroak idazteko. Izan ere, ikerketa mugarrria izan da euskarazko tokian tokiko prentsan, ez baita gisa horretako azterketa sakonik burutu aurretik.

Orain arte euskarazko herri-prentsaren irakurle kopurua ezagutzeko egindako azterketarik fidagarrienak CIESen eskutik etorri dira. Gutxi izan dira, ordea, aukera horretaz baliatu direnak. Debagoieneko *Goienkaria* astekariaren tirada OJDk neurtzen du eta irakurle kopuruak CIESek jasotzen ditu 2005etik aurrera. Halaber,

1. Aztiker Ikergunea, gizarte-ikerketaren esparruan Euskal Herriak dituen ezagutza-beharrei erantzuten laguntzeko asmoz 2001. urtean sortutako lan-taldea da. Bertan ari diren teknikariak esperientzia zabala dute gizarte-zientzietako ikerketa moldeetan: zeharkako iturrien lanketa, inkestak, teknika kualitatiboak... Besteak beste, honako gaiak jorratu dituzte euren ikerketetan: euskara, merkatu-ikerketak, hedabideak eta nazio-estatistikak.

2. *Aikor!* Aldizkaria: irakurleak eta iritzia. Txorierrri, 2008. Ikerketaren emaitzen txostena.

...eta kitto! aldizkaria: irakurleak eta iritzia. Eibar, 2008. Ikerketaren emaitzen txostena.

Karkara aldizkaria: irakurleak eta iritzia. Orio-Aia, 2009. Ikerketaren emaitzen txostena.

Aldaize aldizkaria: irakurleak eta iritzia. Idiazabal, 2009. Ikerketaren emaitzen txostena.

Barren aldizkaria: irakurleak eta iritzia. Elgoibar eta Mendaro, 2009. Ikerketaren emaitzen txostena.

Bortzirietako *Ttipi-ttapa* hamabostekariaren eta Sakanako *Guaixe* astekariaren irakurleen datuak CIESeK jasotzen ditu 2005etik, urtean egiten dituen 2 neurketetan. Beste alde batetik, EKTK argitaratzen dituen eskualdeetako *Hitzen* irakurleen inguruko datuak CIESeK jasotzen ditu, lehenengo *Hitza* 2003an sortu zenetik.

Izan dira erakunde ofizialetatik at egin diren bestelako saiakera batzuk ere. Tokian tokiko prentsak bere kabuz egin dituenak edota 1994an Eusko Ikaskuntzaren Angel Apraiz Ikerketa Bekari esker, Asier Aranguren, Miren Gabantxo eta Jotxo Larrañagaren lanean³ egindako neurketa.

Orobat, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak (HPS) azken urteetan erakutsi izan du euskarazko hedabideen kontsumo eta kontsumitzaileen inguruko kezka. 2005-2009 legealdian egindako hainbat ikerketa dira ardura horren erakusle. Besteak beste, 2006an *Euskarazko komunikabideak*⁴ azterketa amaitu zuen HPSk, 2008an, *Euskal Hedabideak EAEn*⁵ txostena egin zuen eta 2008an *Euskara hedabideetan*⁶ hausnarketa-lana kaleratu zuen.

Egin, egin dira azterketak, euskarazko hedabideetako irakurle eta ikus-entzuleen inguruan, baina euskarazko herri-prentsaren errealitatera zehazki hurbildu diren neurketa sistematikoak urriak izan dira orain artean.

Era berean, Aztikerrek egin duen azterketa horretan atera diren emaitzek frogatu edo deuseztatu dute herri-prentsaren inguruan zeuden zenbait hipotesi, susmo eta pertzepzio. Eta horietako batzuk dira hurrengo lerroetan azaldu nahi direnak. Hortaz, ezin ukatu esku artean dugun ikerketa berrikuntza eta zedarri izan dela tokian tokiko prentsarako.

Arestian aipatu bezala, maiztasun eta botaldi ezberdineko 5 aldizkari ikertu ditu Aztikerrek bi urteren buruan. 2008an, Eibarko *...eta kitto!*⁷ eta Txorierriko *Aikor*⁸, eta 2009an, Elgoibarko *Barren*⁹, Orio eta Aiako *Karkara*¹⁰ eta Idiazabalgo

3. 1997an ikerketa horren emaitzak argitaratu ziren *Mediateka* aldizkarian: "Sei herri aldizkari: edukin azterketaren bidetik hurbilketa bat" titulupean.

4. Azterketak irakurleari eta ikus-entzuleari dagokien alderdia jorratu zuen batez ere, hau da, euskarazko komunikabideak zenbatek kontsumitzen dituzten eta kontsumitzaileen oinarrizko ezaugarriak zein diren ageri dira aipatu azterketan.

5. Lan hori hainbat ikerketaren emaitzen sintesia da. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak eskatuta, bost ikerketa zehatzen emaitzak kontuan hartuta, datu esanguratsuenak biltzen dituena. Honatx ikerlanak:

1- CIESen *Euskarazko komunikabideen polikontsumoari buruzko azterlana*, 2007.

2- CIESen *Euskarazko hedabideen ikus-entzuleei buruzko azterketa*, 2007.

3- Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren *Euskarazko hedabideak azterketa*, 2006.

4- Ikerfel-en *Euskarazko Komunikabideak erabiltzeko eragingarriak eta eragozpenak*, 2007.

5- Euskararen Erakunde Publikoarentzat IPSOSeK egindako *Komunikabideen erabilpenaren azterketa: telebista eta irratia*, 2007.

6. Hamazazpi txostengilek hamabost galdera edo aztergaien inguruan egindako gogoeta biltzen da eta, horrekin batera, baita "Sintesi txostena" ere, non galdera bakoitzaren inguruan ageri diren adostasunak eta desadostasunak laburtu dituzten.

7. 1988an sortu zen. Astekaria da eta 7.950 aleko tirada du.

8. 2002an sortu zen. Hilabetekaria da eta 5.300 ale botatzen ditu.

9. 1992an sortu zen. Astero 4.750 ale kaleratzen ditu.

10. 1989an sortu zen. Hamabostekaria da eta 3.100 aleko tirada du.

*Aldaize*¹¹. Agerkari guztiak Topagunea Euskara Elkartearen Federazioko bazkide dira. Gaur egun 34 aldizkarik, bost irratik eta telebista bik osatzen dute Topagunearen Hedabideen Saila.

Espektroa zabala eta askotarikoa da, maiztasunez, tiradaz, antzinatasunez, lan-taldearen egitura eta antolaketaz. Aniztasun horrek ahalbidetzen du euskarazko tokian tokiko prentsaren irakurleei buruzko diagnostiko erreala goa egitea.

2. Metodologia

Ikerketa-eredu kuantitatiboa eta kualitatiboa erabili dira artikuluan, helburu ezberdinak lortzeko asmoz.

Datu kuantitatiboak ateratzeko, Aztiker Ikerguneak 2008 eta 2009an egindako ikerketa-txostenak eta Topagunea Euskara Elkartearen Federeazioak datuon inguruan egindako bakanketa hartu dira oinarri, ondoren, autoreak moldatu eta bere interpretazioa egin ahal izateko. Arestian aipatu bezala, gutxi izan dira –CIESekin egin dituen ikerketetatik kanpo– irakurleen kopurua jakiteko herri-prentsaren egin diren neurketa zehatz eta sistematikoak. CIESekin ez bezala, esku artean dugun azterketa honek, irakurleen kopurua eta profila jasotzeaz gain, irakurleen iritziak ere jaso ditu, bi modutan jaso ere: alde batetik, telefono bidezko inkestak egin ziren eta, bestetik, aldizkarian bertan txertatu ziren irakurleek betetzeko galdetegiak. Aldizkariarekin batera banatu ziren galdetegiak iritzi-poloak zein diren jakiteko erabili ziren, horiek betetzen dituztenak izan ohi direlako aldekotasan edo aurkakotasun handiena erakusten duten irakurleak. Horrexegatik aukeratu dira artikuluko honetarako HEHOBAREN diru-laguntzen¹² bitartez, 2008 eta 2009an herri-prentsaren merkatuari buruz Aztiker Ikerguneak burututako ikerketen txostenak.

Abiaburu hartu den ikerketa hori, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren eta Aztikerren artean diseinatu zen CIESekin urtero egin ohi dituen neurketetan¹³ oinarrituz. Teknikoki parekagarria izan zitekeen eredu sortu zuten. Irakurleen kopurua, profila eta iritziak jasotzeko, 2008 eta 2009an Aztikerrek 3.664 inkesta¹⁴ egin zituen 15 urtetik gorako herritarren artean Bizkaia eta Gipuzkoako hainbat herritan.

11. 2004an sortu zen. Bi hilean behin argitaratzen da eta 1.000 ale botatzen ditu.

12. HEHOBAREN Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailak banatzen duen diru-laguntza da, euskara hutezko hedabideetan egin beharreko hobekuntza-azterketen gauzatzeko lanak ahalbidetzeko helburuarekin. Hobekuntza-azterketa horien artean, besteak beste, honako hauek lantzen dira: hedabideari buruzko hausnarketa estrategikoa, hedabidearen merkatuari dagokion azterketa, hedabideari zuzenduriko hobekuntza-proposamenak identifikatzea, hedabideari buruzko lan-ildo berrien potentzialitatea eta egingarritasuna lantzea, hedabidearen posizionamenduaren eta hartzailen potentzialarekiko harremanaren diagnostika egitea eta hedabidearen finantzaketa propioa hazteko proposamena lantzea.

13. CIES enpresak urtean bi neurketa egiten ditu Nafarroako eta EAEn komunikabideetako ikusentzuleen datuak jasotzeko.

14. Txorierriko (Bizkaia) *Aikor* hilabetekariaren datuak jasotzeko 908 inkesta egin zituen Aztikerrek 2008ko apirilaren 28 eta maiatzaren 29a bitartean: Derion 248 inkesta, Sondikan 204, Zamudion 159, Lezaman 115, Loiu 101 eta Larrabetzun 81.

2008an ...*eta kitto!* eta *Aikorren* azterketak egin ondoren, 2009an, Aztikerrek eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak erabaki zuten estatistikoki zein izan zitezkeen eredu interesgarrienak herri-prentsaren sektorearen argazki orokor bat ateratzeko. Beraz, 2009an ebatzi zuten, beste astekari bat (*Barren*) sartzeaz gainera, hamabostekari bat (*Karkara*) ere sartzea komeni zela. Halaber, *Aldaize* bezalako produktu baten azterketa egitea oso interesgarria zela iritzi zioten, bihilabetekaria izanik, ezohiko maiztasuna zuelako batetik, eta haren hedapen-esparruan *Goierriko Hitza* egunerokoa euskaraz eta *Goierritarra* hamabostekaria euskaraz kaleratzen zirelako bestetik.

Euskarazko herri-prentsaren irakurleengana hurbiltzen gaituen ikerketa honetan, Araba, Nafarroa eta Iparraldeko daturik ez da agertzen. Araban kaleratzen zen aldizkari bakarra geldialdian dagoelako, Gasteizko *Geu* hilabetekariak 2009ko abenduan kaleratu zuen bere 202. eta azken zenbakia, 17 urteko ibilbidea behin-behinean itxiz. Nafarroan kaleratzen diren *Ttipi-ttapa* eta *Guaixeren* neurketak CIEsek egin ditu 2005etik 2010era bitartean eta antzeko datuak agertzen badira ere, ez diote aztergai diren aldizkariaren eskema berberari jarraitzen, beraz, interpretazio desegokiak saiheste aldera, ez dira Nafarroakoak kontuan hartu artikulu honetan. Iparraldean euskarazko herri-prentsaren baitan sar daitekeen *Herria* astekaria dago soilik eta haren irakurleen inguruan ez dago neurketarik.

Ikerketa-eredu kualitatiboak erabiltzea ere ezinbestekoa izan da, Aztikerren txostenetatik eta Topagunearen bakanketatik eratorritako datu kuantitatiboak era egokian interpretatu ahal izateko. Horretarako, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren Hedabide Saileko teknikari den Joxe Rojasi elkarrizketa sakona¹⁵ egitea hobetsi da, Aztikerrekin batera inkestaren diseinuan parte hartu zuelako.

Eibarko (Gipuzkoa) ...*eta kitto!* astekariaren datuak lortzeko 926 inkesta bildu ziren Eibarren 2008ko maiatzaren 15 eta ekainaren 5a bitartean.

Idiazabalgo (Gipuzkoa) *Aldaize* bihilabetekariaren emaitzak jasotzeko, 418 inkesta egin ziren Idiazabalen 2009ko otsailaren 24 eta martxoaren 5a bitartean.

Orio eta Aiako (Gipuzkoa) *Karkara* hilabetekariaren datuak batzeko, Aztikerrek 687 inkesta bete zituen Orion eta Aian 2009ko otsailaren 12tik otsailaren 28ra bitartean.


Elgoibarko (Gipuzkoa) *Barren* astekariaren emaitzak biltzeko, 725 inkesta egin zituen Elgoibar eta Mendaron 2009ko otsailaren 2tik 19ra bitartean.

15. Elkarrizketa 2010eko maiatzaren 25ean egin zen Andoainean.

3. Datu-bilketen emaitzak eta analisia

3.1. Denbora, aldizkariak ezagutzeko giltzarria

1A. grafikoa.



Iturria: Aztiker Ikerguna eta Topagunea Euskara Elkarten Federazioa. Autoreak moldatua.

Aldizkarien ezagutza Gipuzkoan %90etik gorakoa den bitartean, Bizkaian, *Aikor*ren kasuan, %80an kokatzen da. Hamar puntuko aldea ez da bereziki deigarria, baina aldizkari bakoitza sortu zen garaia eta kalean daraman denbora giltzarri dira ezagutza maila definitzeko orduan. Gogora dezagun euskarazko herri-prentsa Gipuzkoan jaio zela eta bertan sortu zirela hurrengo urteetan aldizkari gehienak. *Barren*, *...eta kitto!* eta *Karkarak* 20 urte daramatzate lanean euren hedapen-eremuetan eta esan daiteke ibilbidea eta ezagutza erabat daudela erlazionatuta.

Izan ere, gehienetan, ibilbide nahikoa luzea behar izaten du hedabide batek, edozeinek, publikoak aintzakotzat hartzeko (Basterretxea, 2008: 133).


Joxe Rojas, Topagunearen Hedabide Saileko teknikariaren arabera, sortze-garaia garrantzitsua da: «*Aikor* da guztien artean gazteena, beste kultura batetik sortu da. Alegia, ez dauka *...eta kitto!*, *Barren* edo *Karkara* batek duen ibilbidea ezta filosofia ere. Ez dator 80. hamarkadaren bukaeran izan zen loraldi horretatik, beste eredu batetik abiatu da eta eragiteko orduan, beste hirurek atzean zuten euskara elkarten babes hori ez du izan *Aikorrek*»¹⁶.

16. Sakoneko elkarrizketa: Joxe Rojas, Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren Hedabide Saileko teknikaria, 2010-05-25, Andoain.

Irakurleen datuak kontuan hartuta, hauteman daiteke biztanle-dentsitatearen eta irakurle kopuruaren arteko harreman zuzena. Hots, zenbat eta biztanle gutxiago izan herriak, orduan eta irakurle gehiago ditu aldizkariak. «Nik uste dut demografiak baduela zerikusirik, zenbat eta biztanle gutxiagoa, errazago saturatu daitekeelako herria»¹⁷, azpimarratzen du Joxe Rojasek.

3.2. Ale bakoitzak uste baino irakurle gutxiago ditu

2A. grafikoa.



Iturria: Aztiker Ikergunea eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa. Autoreak moldatua.

Ale bakoitzeko irakurleak 1,6 inguruan kokatzen dira batez beste. Orain arte, ordea, euskarazko herri-prentsaren irakurleak konputatzeko orduan, datu altuagoak erabili izan dira.


Hainbat herri aldizkarik ikerketak egin dituzte beren irakurleei buruz: *Arrasate Press, Berrigara, Barren, Tipi-ttapak...* Denetan ondorioztatzen da aldizkariaren ale bakoitza hiru lagunek irakurtzen dutela. Zenbaki hau kalkulu zuhurrak eginda ateratzen da. Izan ere, egunkariei 4tik gora irakurle kalkulaten baitzaizkie (Irizar, 2001: 9).

Bi faktore nagusi egon daitezke irakurle kopuruaren jaitsiera hori justifikatzeko. Alde batetik, gizartean izan den demografia-aldaketa, lehen etxebizitza bakoitzean jende gehiago bizi baitzen. Beste alde batetik, etxe askotan bizilagun guztiak ez direla euskaldunak, beraz ez dute aldizkaria irakurtzeko gaitasunik. Horrela interpretatu ditu datuak Topaguneak bost aldizkarietako arduradunekin izandako bileretan. Hala ere, euskarazko aldizkari horiek elebebidunengan eta, oro har, populazioarengan duten sarbidea oso da altua, hurrengo grafikoa ikus daitekeen moduan.

17. Joxe Rojas, *op.cit.*

3.3. Herri-aldizkariak, irakurle erdaldunengana heltzeko tresna baliagarria dira

3A. grafikoa.



Iturria: Aztiker Ikerguna eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa. Autoreak moldatua.

3A. grafikoa sarbidea hiru ataletan agertzen da banatuta. Aldizkariak euren hedapen-eremuan populazio osoarekiko duten sarbide-portzentajeari dagokionez, Eibarko *...eta kitto!* eta Txorierriko *Aikorrek* erakusten dituzte portzentajerik baxuenak, biak ala biak % 57tik behera kokatzen baitira. Aitzitik, *Barren*, *Karkara* eta *Aldaizek* % 70 gainditzen dute. Azken hiru agerkarien kasuan ezin ahaz daiteke haien zabalpen-esparrua euskaldunagoa dela. Eustat-Euskal Estatistika Erakundeak¹⁸ kaleratutako datuek erakusten dute Txorierrri eta Eibar direla lurralderik erdaldunenak, aztergai diren gainerakoekin alderatuz.

Bost aldizkariak maila oso altua daukate elebidunetik sarbidean. Guztietan % 70etik gora kokatzen dira ehunekoak eta datu hori ezin hobea dela aitortzen dute Topagunean.

Aztikerrekoek esaten ziguten teknikoki saturazioa dela halako sarbidea izatea. Hau da, ezin dela publiko gehiagorengana heldu. Aztiker enpresako teknikari Iñaki lurrebasok esan zigun inoiz ez zuela horrelakorik ikusi. Egia esan, euskalduna ez zen jendearen artean aldizkariari zer nolako harrera egiten zitzaion ezagutzeko jakin-mina egon bazegoen, horregatik, eta hasieran zalantzak izan arren, euskaraz ez zekitenei ere egin genizkien telefono bidezko galdetegiak. Are gehiago, aldizkariarekin batera txertatu ziren galdetegi asko gazteleraz idatzita jaso genituen, jendeak barkamena eskatuz euskaraz ezin zuelako idatzi. Horrek argi eta garbi erakusten du aldizkariarenganako atxikimendua izugarria dela oro har, eta espero baino askoz handiagoa erdaldunen artean¹⁹.

Aikor, *...eta kitto!*, *Barren* eta *Karkararen* zabalpen-eremuetan agerkari horiek dira etxeetan sartzen diren euskarazko aldizkari bakarrak, kasu guztietan % 80tik gorako portzentajeetan. *Aldaizeri* dagokion datua, aldiz, ez da horren nabarmena,

18. Biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera 2006an.

19. Sakoneko elkarrizketa: Joxe Rojas, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren Hedabide Saileko teknikaria, 2010-05-25, Andoain.

Idiazabalen *Goierriko Hitza* eta *Goierritarra* hilabetekaria ere kaleratzen direlako, biak euskara hutsez.


Eusko Jaurlaritzaren HPSk 2008an argitaratu gabeko *Euskal Hedabideak EAEn* txostenean oso argi azaltzen da (Eusko Jaurlaritza, 2008: 22):

Euskararen hizkuntza erkidegoa zirkulu kontzentrikoz osatutako fenomeno bezala begiratzen badugu, esango genuke, batetik, nukleoa txikia dela (100.000 lagun inguru) baina euskararen biziraupenerako ezinbestekoa dela hau elikatzea, eta bestetik, nabarmenduko genuke euskararen hizkuntza erkidegoan periferia osatzen dutenen kopurua nukleoarena baino askoz handiagoa dela eta euskararekiko atxiki-mendua oso txikia dela geruza gehienetan baina periferia elikatzea eta nukleorantz erakartzea ere ezinbestekoa dela euskara normalizatzeko. Beraz, euskal hedabideen xedea batetik nukleoa elikatzea eta bestetik zirkulu kontzentrikoetan hedatzea izan behar da. Kontsumitzaileak irabazteko estrategiak behar dira.

Hortaz, oso kontuan hartzeko datuak dira, aldizkari bakoitzak kaleratzen den esparruan lortzen duelako periferiara heltzea. Izan ere, 3A. grafikoan ageri diren datuek horixe adierazten dute Joxe Rojasen esanetan: «Guri askotan leporatu izan digute eta leporatzen digute herri aldizkariak doan almodapean sartzen dizkiegula herritarrei. Baina datuek erakusten digute gurea badela modu bat horiengana ere heltzeko, nukleotik irten eta periferiara heltzeko alegia»²⁰. Sarbideari dagozkion emaitzetan ikus daiteke euskarazko herri-prentsaren ereduak asmatu duela eta funtzionatzen duela periferia elikatzeko.

3.4. Gehiengo zabal baten ustez, aldizkariak pluralak eta lerrotu gabeak dira

4A. grafikoa.



Iturria: Aztiker Ikergunea eta Topagunea Euskara Elkarten Federazioa. Autoreak moldatua.

20. Sakoneko elkarrizketa: Joxe Rojas, Topagunea Euskara Elkarten Federazioaren Hedabide Saileko teknikaria, 2010-05-25, Andoain.

Irakurleek aldizkariari buruz duten iritzia kontuan hartuta, oso altuak dira toki guztietan aldizkaria plurala dela eta udalarekiko objektiboa dela dioten ehunekoak.

Atentzioa ematen dute emaitzek; izan ere, agerkariak kaleratzen diren bost guneetako udaletan dauden alderdiak ezberdinak dira: Txorierriko Derio, Sondika, Zamudio, Lezama, Loiu eta Larrabetzun EAJ alderdia dago udaletan. Eibarren PSE-EE, Elgoibarren EAJ, Orío eta Aian EAJ eta Idiazabalen EA eta independenteek osatutako Izal Blai hautagaitza. Beraz, alderdiak ezberdinak izanda ere, % 80tik gorako portzentajeak dio udalarekiko objektiboa dela. Aldizkariaren pluraltasunari buruz galdetuta, herri guztietan aldizkaria plurala dela irizten dio irakurleriaren gehiengo zabal batek (% 80tik gora).


Dena dela, aldizkaria lerrotua dagoela pentsatzen duenik ere bada: *Aikorren* % 13,2k, ...*eta kitto!*-n % 5,6k, *Barrenen* % 11k, *Karkaran* % 14,7k eta *Aldaizen* % 6,5ek. Bitxia da, lerrotua dela diotenen irakurle gutxi horien artean, bi joera nagusi ikusten baitituzte, Batasuna eta EAJren aldekoa hain zuzen ere. Eibarko ...*eta kitto!* lerrotua dagoela pentsatzen duten irakurleen % 5,7 horren artean, Batasuna eta PSE-EE aipatzen dira.

Itaun horiek galdetegian sartzea ez zen erabaki erraza izan, gustuko ez zuten erantzuna jasoko zuten ustea eta beldurra baitzuten aldizkarietako arduradunek eta Topaguneko kideek ere. «Uste zen jendeak lerrotuta ikusiko zituela aldizkariak eta udalarekiko objektibotasun eza antzemango zuela, baina aurreikus zitekeenaren kontra, jende gehienak ez ditu tokian tokiko aldizkariak lerrotatuta ikusten. Datuek erakutsi digute, aldiz, lana ondo egiten ari garela eta guztiz erratuta geundela gure uste horietan. Beraz, batetik harritu egin gara eta bestetik poztu»²¹.

Prensa orokorra talde ekonomiko edo ideologikoen esku dago, ia salbuespenik gabe. Eta bakoitzak bere taldearen interesen arabera jokatzeko du. Hau zilegi da, baldin eta oinarriko arau bat betetzen bada: irakurleak informazio osoa jaso behar du, eta iritzi ataletan emango zaizkio interpretaziorako pistak. Zoritxarrez, prentsan ohikoa da informazioa galbahetik pasatzea eta iritzi betetzea. Horrela, gai baten alde guztiak ezagutzeko behartuta gaude hiruzpalau egunkari erostera. Hau ez da gertatzen herri prentsan. Hemen patrioiak oinarri sozial zabala eta plurala duten elkar-teak dira, euskara dute interes komun bakarra. Gainera, informazioa kontrastatzea oso erraza zaio irakurleari, nekez sar dakiok porrurik. Azkenik, Euskarazko herri prentsak gehienetan udalen diru laguntza jasotzen du, eta hauen kolore politikoa ezberdina izaten da herritik herrira eta, denboran zehar, aldakorra herrian bertan. Hala ere, herri prentsak ez du arazorik izan koloreekin; lerratu gabea den seinale. Konbentzimenduz diot: Euskal Herrian den prentsarik zintzoena herri prentsa da (Irizar, 2003: 3).

21. Sakoneko elkarrizketa: Joxe Rojas, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioaren Hedabide Saileko teknikaria, 2010-05-25, Andoain.

5A. grafikoa.



5A. grafikoa agertzen den hirugarren zutabea ia inkestatu guztiek diote herri-aldizkaria egotea ona dela. Aldekotasunaren portzentajea oso da altua, apenas antzeman daiteke aurkakotasunik irakurleen artean, baina ezin ahaz daiteke desbideratze txiki bat egon daitekeela. Hau da, aldizkariaren izenean deitzen dela esatean, jendea ez da ausartzen benetan pentsatzen duen guztia esatera. Hala eta guztiz ere, Aztikerrek telefonoz egin dituen 3.664 inkestaren artean ez dago erantzun bakar bat bera ere herrian aldizkaria egotea txarra dela dioenik, eta guztiak ausazko inkestak izan dira.

3.5. Irakurleen atxikimendua handia da aldizkariekiko

6A. grafikoa.



Iturria: Aztiker Ikergunea eta Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa. Autoreak moldatua.

6A. grafikoa irakurleek aldizkariei emandako batez besteko nota dugu. Guztiek gairitu dute eta oso ondo gairitu ere.

Balorazio horretan hiru atal hartuko dira kontuan: batetik, irakurleek aldizkaria irakurtzeari eskaintzen dioten denbora; bestetik, aldizkaria jasotzen dutenean lehenbizi begiratzen dituzten atalak, eta hirugarrenik, ondo baloratzeko arrazoi nagusiak zein diren.

Aldizkariak irakurtzen emandako denbora oso antzekoa da bost kasuetan, 27-34 minutu bitartekoa, astekaria, hamabostekaria zein hilabetekaria izan, ez dago batzuen eta besteen artean alde nabarmenik. Hortaz, agerkarion maiztasunak ez dio irakurtzeko denborari eragiten.

Irakurleek aldizkaria jasotzen dutenean zein atali begiratzen dioten lehenbizi galdetuta, gehiengoak aldizkarietako **azala** eta **argazkiei** begiratzen diela aitortzen du. Halaber, irakurleak erakartzen ditu herriarekin zerikusia duen albistea izateak edota jende ezaguna aldizkarian agertzeak. Argazkiek betidanik izan dute euskarazko herri-prentsan presentzia eta protagonismo berezia, aldizkari lokalen ezaugarri indartsua dela baieztatu daiteke.

Argazkiek sekulako arrakasta daukate, besteak beste, jendeari izugarri gustatzen zaiolako berauetan agertzea. Jendearentzat zaila izango da egunkari handietan inoiz agertzea, baina posibilitateak areagotu egiten dira ikaragarri herri-mailako aldizkari batean. Euskaraz jakin ala ez, argazkiak bere hizkuntza propioa du, jendeak baloratu egiten ditu argazkiak eta beraietan motiborik agertuz gero, albokoa irakurtzera edo itzulpena eskatzera bultzatuko du (Aranzabal, 1992: 77).

Bi arrazoi nagusi nabarmentzen dituzte irakurleek aldizkaria ondo baloratzeko orduan: gustura irakurtzea eta bertokoa izatea batetik, eta euskara sustatzea bestetik. Aldizkariaren zabalpen-eremuaren arabera, bata edo bestea gailentzen da. Hots, herri euskaldunagoak direnetan —Elgoibar, Aia, Orio eta Idiazabalen kasu— gustura irakurtzea eta bertakotasuna azpimarratzen dira aldizkariaren balorazio positiboa egiteko. Txorierrin eta Eibarren, aldiz, gehiago dira esaten dutenak euskara sustatzea dela balorazio positiboa egiteko arrazoiak. Nolanahi ere, bost aldizkarietan arrazoi biak maila berean jartzen dituztenen kopurua ere altua da.

Orain arteko emaitzek kaleratzen den eremura estuki lotutako argitalpen baten argazkia erakusten dute, irakurleen aldetik aldizkariarekiko dagoen atxikimendua eta egiten duten lanaren onarpena eta esker ona. Bertakotasuna, hurbiltasuna eta bertako protagonisten argazkiak dira besteak beste, irakurleek bost aldizkariotan bilatzen dutena. Eta horixe eskaintzen diete neurri batean aldizkariak irakurleei, batez besteko notak kontuan hartzen baditugu.

4. Ondorio nagusiak

Euskarazko herri-prentsaren irakurleak zenbat diren eta irakurtzen dituzten produktuekiko duten iritzia ezagututa, honatx bildu diren ondorio nagusiak:

1. Euskarazko herri-prentsaren publikoaren eta irakurleen iritzien inguruan, orain arte frogatu gabeko pertzepzio eta usteak baino ez zirenak, egiaztatu edo deuseztatu egin dira beharrezkoak ziren datu zientifiko eta objektiboen bitartez.

2. Herri-prentsan beste edozein hedabidetan gertatu ohi den antzera, denboraren faktorea giltzarria da publikoarengana heltzeko eta bere zabalpen-eremuan sustraitzeko. Emaitzek argi erakusten dute, zenbat eta denbora gehiago kalean izan, aldizkariak irakurleen artean duen ezagutza maila handiagoa dela, zenbait tokitan egunkari salduenen parekoa. Hortaz, urteetako lanak bermatzen du erreferentzialtasuna.
3. Irakurle kopuruari dagokionez orain arte egindako estimazioak ez dira zuzenak izan. Herri-prentsaren ale bakoitzak, aurreikusten zena baino irakurle gutxiago baititu. Orain arte herri-prentsaren irakurleak neurtzeko maiz erabili izan da, ale bakoitza 3-4 lagunek irakurtzen zuela. Emaitzek argitu dute gaur egun ez dela baliagarria datu hori.
4. Euskarazko herri-prentsari urteetan egin zaizkion kritikak eta beraren inguruan zeuden hainbat aurreiritzi gezurtatu dituzte emaitzek. Besteak beste, lerrotua egotearena beti izan da herri-prentsari egotzi zaion aurreustea eta azterketaren datuen arabera, gehiengo zabal batek bermatzen du euskarazko herri-prentsa plurala dela.
5. Sarbideari dagozkion datuei erreparatuta, euskarazko herri-prentsaren eredu gertukoa, euskarazkoa eta doakoa, euskaldunak ez direnengana ailegatzeko baliagarria eta egokia dela baieztatu daiteke. Are gehiago, euskaraz ez dakien jendearen artean ere, atxikimendu eta onarpen maila handia lortzen dute aldizkariak.
6. Agerkari guztiek aurreikusi baino balorazio hobea jaso dute, hurbiltasuneko informazio lantzen eta euskara sustatzen betetzen duten funtzioagatik batik bat. Izan ere, bi horiek dira irakurleek balorazio positiboak egiteko erabili dituzten arrazoi nagusiak. Aitzitik, tokian tokiko hedabideen lana bigarren mailakotzat hartzen dituztenak oraindik ere asko dira, nola maila profesionalen hala maila akademikoan.

5. Etorkizunerako proposamenak

- a. Krisiak krisi, etorkizunean 2008an ekindako bideari eustea ezinbestekoa da. Alegia, aldizkari guztietan horrelako ikerketak egitea beharrezkoa da, horrexek emango baitu aukera eta bidea bakoitzaren errealitatea ezagutzeko eta bakoitzaren formula egokia den ala ez jakiteko. Hortik abiatuz, eta horrela bakarrik, datu objektibo eta zientifikoak laguntzaz, etorkizuna era ardurasuan diseinatu ahal izango du aldizkari bakoitzak, bakarka, bidean geratuz edo bestelako formula batzuk garatuz.
- b. Emaitzak eskuan, herri-aldizkari askok bere txikitasunean dituzten konplexuak baztertzeko eta euren lanean sinesteko ariketa egin behar dute. Orain arte datu objektiboak falta izan dira eta ikerketa hauek horretarako balio behar dute, euskarazko herri-prentsaren ereduak etorkizuna duela frogatzeko.
- c. Herri-prentsak berak ez eze, alor profesionalak eta baita alor akademikoak ere bigarren mailakotzat hartu duen eta hartzen duen kazetaritza-eredu horri merezi duen prestigioa aitortzea beharrezkoa da. Emaitzek erakutsi baitute

herriarrek gustuko duten eta kontsumitzen duten prentsa dela herri-prentsa. Are gehiago, ezin ahaz daiteke, egun, euskaraz egiten den kazetaritza nagusiki esparru txikikoa dela, herri edo eskualde mailakoa.

- d. Produktuen definizioarekin eta ereduarekin asmatu bada ere, dagoen oinarri sendo hori aprobeztatuz, hobetzen jarraitu beharra dago etorkizuna ziurtatu nahi bada. Sarearen eta paperaren osagarritasunean asmatuz, irudi publiko gehiago landuz, langileen lan-baldintza duinak bermatuz, finantzaketa-bide berriak bilatuz eta, oro har, profesionalizazioan pauso sendoak emanez. Horrek guztiak ziurtatuko ditu emaitza onak irakurleen neurketetan aurrerantzean.

Bibliografia

- Aiestaran, A. (2009): *Deba barreneko euskarazko komunikazio sistema: Tokian tokiko aldizkarien kazetaritza-genero eta gaien analisisa 2000-2004 bitartean* DVDa. Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- Aranguren, A. (2000): *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Leioa.
- Arantzabal I. (2008): "Tokiko hedabideak etorkizun handia dute", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, **68**, Andoain, Gipuzkoa. 103-114.
- Aranzabal J. (1992): "Herri-aldizkari baten taxuketa", *Jakin*, **69**, Donostia, 67-80.
- Aztiker. (2008): *...Eta kitto! aldizkaria: Irakurleak eta iritzia. Eibar, 2008. Ikerketaren emaitzen txostena*, Andoain.
- Aztiker. (2008): *Aikor! aldizkaria: Irakurletak eta iritzia. Txorierrri, 2008. Ikerketaren emaitzen txostena*, Andoain.
- Aztiker. (2009): *Aldaize aldizkaria: Irakurleak eta iritzia. Idiazabal, 2009. Ikerketaren emaitzen txostena*.
- Aztiker. (2009): *Barren aldizkaria: Irakurleak eta iritzia. Elgoibar eta Mendaro, 2009. Ikerketaren emaitzen txostena*, Andoain.
- Aztiker. (2009): *Karkara aldizkaria: Irakurleak eta iritzia. Orio-Aia, 2009. Ikerketaren emaitzen txostena*, Andoain.
- Basterretxea J.I. (2008): "Sektorea sinergia argiaren esperoan", in Zenbaiten Artean, *Euskara hedabideetan*, Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, Gasteiz, 123-141.
- Eusko Jaurlaritza. (2006): *Euskarazko Hedabideak* (barne-txostena), Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, Gasteiz.
- , (2008): *Euskal hedabideak EAEn*, Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, Bilbo.
- , (2008): *Euskara hedabideetan*, Eusko Jaurlaritza-Kultura Saila, Gasteiz.
- Eustat. (2006): *Biztanleria, lurralde-eremuaren, ama-hizkuntzaren eta etxean hitz egiten den hizkuntzaren arabera*, Eustat, Euskal Estatistika Erakundea, Gasteiz.
- Irizar, M. (2001): *Goiena esperientzia, eskualdeko talde multimedia baten sorrera*, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- , (2003): "Herri aldizkariak: Balantzea eta etorkizuneko erronkak". *Bat: Soziolinguistika Aldizkaria*, **48**, Andoain, Gipuzkoa. 53-65.
- Larrañaga, J., Gabantxo, M. eta Aranguren, A. (1997): "Sei herri aldizkari: Eduki azterketaren bidetik hurbilketa bat", *Mediatika, Cuadernos De Medios De Comunicación Aldizkaria*, **6**, Eusko Ikaskuntza, Donostia, 15-40.

